

XXII. IGANDEA URTEAN ZEHAR (B)

Otoitza

Zeru-lurren Jaungoikoa, Zugandik dator on guztia;
sartu gure bihotzetan zure izenaren maitasuna;
lotu gaitzazu gero eta estuago Zeurekin,
gure baitan biziarekin dezazun ona den guztia
eta biziarekin duzuna arreta handiz zaindu.
Zure Seme Jesu Kristo.

I. IRAKURGAIA: Dt 4, 1-2. 6-8

*Ez erantsi ezer Nik agintzen dizuedanari...
Gorde Jaunaren aginduak.*

Deuteronomio liburutik

Moises honela mintzatu zitzaion herriari: «Entzun orain, Israel: Nire agindu eta arauak bete ditzazuen erakusten dizkizuet; horrela, biziko zarete; Jaunak, arbasoen Jaungoikoak, emango dizuen lurrean sartuko zarete eta haren jabe egingo. Ez erantsi ezer, ez kendu ezer, Nik agintzen dizuedanari; Nik eman bezala gorde Jaunaren, zuen Jaungoikoaren, aginduak.

Gorde itzazue, bada, eta bete; horrek egingo zaituzte zentzudun eta jakintsu herri guztien aurrean; eta haiek agindu hauek entzutean, esango dute: "Bai herri zentzudun eta jakintsua dela herri hau!" Izan ere, bai ote da herri handirik, bere jainkoak hain hurbil dituenik, guk Jauna, gure Jainkoa, hurbil dugun bezala, dei egiten diogun aldi bakoitzean? Bai ote da herri handirik, gaur nik ematen dizuedan lege hau bezain agindu eta arau zuzenak dituenik?»

ERANTZUN SALMOA: Sal 14, 2-3. 4-5

R/. Jauna, nor dagoke zure txabolan?

Akatsik gabe eta zintzo dabilena,
bere artean egia dioena.
Mihiz inor besten ez duena,
hurkoari gaitzik egiten ez diona,
aizkoria lotsagarri uzten ez duena. R/.

Gaiztoari esker txarra ematen diona,
Jainko-beldur dena ospatzen duena;
bere kaltetan zin eginik ere aldatzen ez dena,
dirua irabazitan ematen ez duena,
errugabearen aurka eskupekorik hartzen ez duena. R/.

II. IRAKURGAIA: St 1, 17-18. 21b-22. 27

Egizue hitzak dioena.

Santiago Apostoluaren epistolatik

Ene senide maiteok: Emaizta on guztiak eta dohain bikain guztiak

Aitarengandik. Harengan ez baitago itzalgunerik, ez itzalaldirik. Berak, bere gogoz, egiaren hitzez sortu gaitu, bere izaki guztietan lehenengoak izan gaitezen.

Onar ezazue apal-apal, zuengan ereinda dagoen eta zuen arimak salba ditzakeen hitza. Egizue hitzak dioena, eta ez entzun bakarrik, zeuen buruak engainatuz.

Jainkozaletasun garbi eta akatsik gabea, Jaungoikoa Aitaren begietan, hau da: umezurtzei eta alargunei beren nahigabeetan laguntzea, eta mundu honen kutsutik garbi irautea.

EBANJELIOA: Mk 7, 1-8. 14-15. 21-23

Aleluia: St 1, 18

R/. Aleluia.

V/. Aitak, bere gogoz, egiaren hitzez sortu gaitu,
bere izaki guztietan lehenengoak izan gaitezen. R/.

*Jaungoikoaren aginduak bazterrera utzi,
eta gizakien ohiturak gordetzen dituzue.*

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik

Aldi hartan, bildu ziren Jesusengana farisearrak eta Jerusalendik etorritako idazlari batzuk, eta ikusi zuten, ikasleetako batzuk esku zikinekin —hau da, eskuak garbitu gabe— jaten zutela. (Farisearrek eta gaineko judutar guztiek ez baitute jaten eskuak ondo garbitu gabe, zaharren ohiturari jarraituz; eta plazatik etortzean, ez dute jaten bustialdi bat hartu gabe; eta badituzte horrelako beste ohitura asko, gatilu, pitxer, eta ontziak garbitzeko, zaharretatik ikasiak).

Orduan, farisearrek eta idazlariak galdetu zioten: «Zure ikasleek zer dela eta ez dute gordetzen zaharren ohiturarik, eta zergatik jaten dute esku zikinekin?»

Hark, ordea, erantzun zien: «Itxurazaleak! Ederki asko esan zuen Isaias profetak zuetaz. Idatzirik baitago:

"Herri honek ezpainez goستن nau,
baina bihotza urruti dauka Niregandik.
Hutsa da ematen didaten gurtzea,
gizakien agindu diren erakutsiak
erakusten baitituzte".

Jaungoikoaren aginduak bazterrera utzi, eta gizakien ohiturak gordetzen dituzue».

Eta berriro jendeari dei egin eta esan zion: «Entzun guztiok, eta adi ezazue hau: ez da ezer, kanpotik sartuz, gizakia zikin dezakeenik; barnetik ateratzen denak zikintzen du gizakia. Barnetik, gizakiaren bihotzetik, ateratzen baitira asmo txarrak: lizunkeriak, lapurretak, gizon-hiltzeak, ezkontz nahasteak, dirugoseak, gaiztakeriak, maltzurkeriak, lohikeriak, bekaizkeriak, gaizki esateak, handikeriak, zorakeriak. Gaitz hauek guztiak barnetik ateratzen dira, eta hauek zikintzen dute gizakia».

Oparigaien gainekoa

Eskaintza santu honek, Jauna,
ekar diezagula beti zure salbamenaren dohaina,
sakramentuetan ospatzen duguna
zure indarrak bete dezan.
Jesu Kristo.

Jaunartze ondorengo

Mahai santuko ogia harturik, Jauna, otoitz egiten dizugu:
maitasunaren janari honek bizkor ditzala gure bihotzak
eta eraman gaitzala Zu gure senideetan zerbitzatzerara.
Jesu Kristo.